

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

HM UDARAKO KONTZERTUA

2021eko ekainaren 26an - 19:00 - Arizmendi Enea (Oiartzun) - 5 €

Xuacu eta Paula Amieva (Asturias)



Asturiasetik datorren musikari bikote honek bere lurraldeko soinu-tresnen eta musikaren ezagutza zabala du. Kontzertuan zehar beraien herrialdeko doinu eta erritmoak jotzeaz gain Asturiasen jotzen diren soinu-tresnei buruzko azalpenak ematen dituzte.

Xuacu Amieva gaiteroa eta gaiteroen maisua da. Horrekin batera, landa lanean herri musika biltzen, multiinstrumentista, doinu berriak sortzen eta lehendik daudenei moldaketa berriak egiten aritzen da.

Musikarekin izan duen bere harremanean, 1981ean Oviedoko lehen Herri Musika eskola sortu zuela aipatu behar da. Handik sortu zen 1985ean berak zuzentzen duen *Banda Gaites Naranco*. Gaitarekin lotuta, Francisco Ortegarekin batera asturiar gaitarako lehen ikasketa metodoa argitaratu zuen 1984an, geroago beste bi argitaratuz.

Beleño eta *Ubiña* folk taldeen sortzaileetako bat izan zen 1980ko hamarkadan. Bakarlarri moduan eta *Xuacu Amieva folk* taldean aritu ondoren, gaur egun asturiar herri musikan erabili izan diren rabela eta zarrabetea bezalako soinu-tresnak ere joaz *Al son de Amieva* eta *Dobra* taldeetan aritzen da.

Paula Amieva abeslari eta perkusio jolea da. Hala, *Banda da Gaites Naranco* taldeko perkusio zuzendaria da eta Magisteritza Musikalean diplomatua da. *El Castiellu* dantza taldeko perkusionista izateaz gain hainbat gaitero asturiar danborrarekin laguntzen ditu eta *Al son de Amieva* eta *Dobra* taldeetan aritzen da.

El dúo de músicos que viene de Asturias tiene amplios conocimientos de los instrumentos y la música de su tierra. El programa del concierto consta de melodías y ritmos de Asturias que se complementan con explicaciones sobre los instrumentos que tocan.

Xuacu Amieva es gaitero y maestro de gaiteros. Además, es investigador de campo, multiinstrumentista, compositor y arreglista.

Fundó la primera escuela de Música Tradicional de Oviedo en 1981, a partir de la que se creó en 1985 la *Banda da Gaites Naranco*, de la que es director musical. Relacionado con la gaita, en 1984 editó junto a Francisco Ortega el primer Método de Gaita Asturiana, al que le siguieron otros dos métodos.

Fue cofundador de los grupos folk *Beleño* y *Ubiña* en la década de 1980. Tras una época como concertista solista y el grupo *Xuacu Amieva folk*, actualmente forma parte de los grupos *Al son de Amieva* y *Dobra* donde han integrado más instrumentos de la tradición musical asturiana como el rabel y la zanfona.

Paula Amieva canta y es percusionista. Así, es la directora de percusión de la *Banda da Gaites Naranco* y diplomada en Magisterio Musical. Además de ser percusionista del grupo de danzas tradicionales *El Castiellu* ha acompañado a diferentes gaiteros asturianos y forma parte de los grupos *Al son de Amieva* y *Dobra*.